


Bizitza laztantzen dugu



Boluntariotza

Mundua mugiarazten
duen ilusioa



BOLUNTARIOTZA



Jarraiguazu ondokoetan:



ONCE^{ren} boluntarioria



Zer da?

ONCEren Boluntarioria Zerbitzua gizarte ekimen bat da, erakundeko afiliatuak diren pertsona itsuei – adina edozein izanda- laguntza ematea helburu duena. Izan ere, Zerbitzu horrek laguntzen du itsu zein gor-itsu izateagatik edo ikusmen desgaitasun larria edukitzeagatik eguneroko ekintzak gauzatzeko zure laguntza solidarioa behar duten pertsonak aukeraz betetako "mugarik gabeko" mundu batean inklusioa lor dezaten.

Zatoz nirekin

Nola ikusten duzu?

Zatoz ezagutzera!

Zertarako eska daiteke zerbitzu hau?

Eguneroko jardueretarako, hala nola joan-etorrietarako, kudeaketa zereginetarako, kontsultetara edo museoetara joateko, kirolean aritzeko, gutunak irakurtzeko, eta abarretarako.

Boluntario izan nahi duzu?

Adinez nagusia bazara, zure elkartasuna behar duten beste pertsona batzuk lagundu nahi badituzu eta astirik baduzu, ez izan zalantzarik eta jar zaitez gurekin harremanetan.

Elkartu zaitez gurekin mundua aldatzeko!

Desgaitasunen bat duzu eta boluntario izan nahi duzu?

Hori baldin bada zure kasua - ONCEko afiliatua izan zein ez izan-, baina besteak laguntzea gustuko baduzu, ziur gaude zure gaitasun eta trebetasunen arabera aukerak aurkituko ditugula elkarrekin.

Anima zaitez eta egin ezazu proba!



Emango duzu izena?



Lagunduko diguzu aukeratzen?

Zer-nolako programak garatzen ditugu?

• Konpainia zerbitzua

Konpainia egiteko zerbitzua joan-etorrietan, hala ONCEk eskainitako zerbitzuetara bertaratzeko nola senitartekoak bisitatzeko edo kanpo zerbitzuetara, kontsulta medikoetara kasu, joateko. Etxean edo ospitalean konpainia egiteko zerbitzua; gida txakurrak gainbegiratzeko laguntasuna ariketa fisikoa egiteko uneetan edo aisia jardueretan; telefono bidezko konpainia zerbitzua geografikoki urrutien dauden pertsonentzat edo bakartasunean daudenentzat.

Konpainia edonon!

• Informaziorako sarbidea

Agiriak irakurtzea, eskuizkribuak egitea, inprimakiak betetzea, tresna informatikoak (ordenagailuak, mugikorrak, tabletak, eta abar) baita ikusmen desgaitasuna duten pertsonentzako berariazkoak erabiltzeko babesak, Braille baliatzen laguntzea, eta abar.

Idatzizko hitza, denon eskura!

Zure esperientzia ereduia izango da beste boluntario batzuentzat. Lagunduiguzu zerbitzu honen berri ematen!

• Kirol arloa

Ikusmen desgaitasuna ez da oztopo izan behar korrika egitera ateratzeko, patinatzeko, azken batean, zeinahi kirol egiteko edo kirol instalazioetara sartu nahiz horietan barna mugitzeko. Laguntzaile on bat ondoan, posible da.

Jar zaitez sasoian!

• Kultura/Olgeta arloa

Kultura eta olgeta jardueretan parte hartzeko laguntza, hala nola museoak bisitatzeko edo kultura eta erakunde jarduerak antolatzen elkarlanean aritzeko. Ikusmen asistentzia guraso itsuentzat seme-alabekin jolas-parkean arratsalde-pasa dibertigarria egiteko...adibidez.

Parteka ditzagun kultura eta dibertsioa denak emanda!

Gainera, nazioarteko boluntariotzaren bidez munduko beste zenbait lekutan laguntza ematen diegu zailtasunak dituzten pertsonei.



Anima zaitez!

Informazioa eta izen-ematea

Informazio gehiago jaso edo gure Boluntarioritza Zerbitzuan izena eman nahi izanez gero, ondorengo bideak erabil ditzakezu:

- 1 Zure etxetik hurbilen dagoen ONCE zentroan.
- 2 ONCEren webgunean xede horretarako topatuko, duzun formularioa erabiliz:
<https://www.once.es/Comprometidos/voluntariado>

“Jasotzen dugunarekin ateratzen dugu bizimodua, baina ematen dugunarekin egiten dugu bizitza”.

John Maxwell



Berdinak
Gaurko. Biharko.

